



# Zalditurrialdekoa (-a) etxebizitza

Aldacrak: Zalditurriakzesoria  
Ahozkoa: Saltúrrixek



43° 10' 46"

2° 35' 22"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

*"... la casa accesoria o menor de Zalditurri de una vivienda renovada recientemente en parte... en la misma barriada de Andicon, ocupa cincuenta y cuatro y medio estados cuadrados de planta solar... se compone en su piso llano de zaguán, cocina, aposento y cuadra; en el piso principal de cuatro dormitorios y pajar, y encima desban..."*  
DJE 5/22 or. (1881)

Egun bizitza bateko baserri hau lehen *Zalditurri* etxearen eranskin zen, eta horrela jasotzen da dokumentuetan: *Zalduiturria Accesoria* (1905, BUA, 40). Baserriko ganadua gordetzeko erabiltzen zen, eta 2004an, baserri erara zaharberritu zuten. Lehengo eraikinari goiko pisu bat gehitu zitzaion, eta teilatuaren orientazioa ere aldatu zuten. Horren aurrealdean baserriko labea aurkitzen dugu. *Zalditurria* baserriaren (**Ikus Zalditurria**) kasurako aipatu dugun moduan, auzotarren artean eraikin bi hauek *Saltúrrixek* moduan ezagutzen dituzte.

Gaur egun guztiz berriztatuta eta aldatuta badago ere, XIX. mende hasieran itxuratutako

baserria da, eta garai hartatik hormak baino ez ditu kontserbatzen. Pisu bi eta ganbara ditu honek, eta egitura oso simplea da. Erdian, atartea dauka, eta horren alboetan, leiho bana. Lehenengo solairuan, aldiz, leiho luzea dauka erdian, eta beste bi leiho aldamentetan; gorengo pisuan, azkenik, leiho bakarra. Erabilitako materiala harlangaitza da; baina harlanduaz baliatu ziren kantalak indartzeko, baita leiho ertzetan ere. Atartean eta horren gaineko balkoiaren dintekek dobelak dituzte. Isurki biko teilatuari miru-buztan deritzona gehitu diote.

## toponimia

*Bi izan daitezke etxe honen izenaren azalpenak bata itxuraz errazana zaldiaeren iturria. Tamalez, oso zail da Euskal Herriko toponiman zaldia agertzea behorra baitzen erabiltzen zena (Behobia, Beotegi...). Beraz pentsa genezake Zaldibar izenaren kasuan bezala hemen ez dugula zaldi hitza zaldu baizik. Zaldu ez da egun euskaraz erabiltzen, baina latinetik hartu zuen euskarak eta erdaraz ere badago, soto. Biak datoz latineko saltus 'baso' hitzetik. Zaldu esaten zitzaion abereen babeslekurako baso txikiei, sarritan erreka ondoan zeudenak. Oso polita da 1074ean Nafarroako dokumentazioan dagoen aipua: Soto uno, que dicitur a rusticis Aker Çaltua. Kasu honetan aldekoa gehitu zitzaion izenari eta gero etxe izen bihurtu Bizkaiko ereduari jarraiki.*